

Galdera

Beti loturik idatzi behar da **zerikusi**?

Erantzuna

Ez, **zer ikusi** eta **zerikusi** ez dira gauza bera.

1- **Zer ikusi** lokuzioa da; galdetzailea eta aditza ditu osagaiak:

*Han bazen **zer ikusirik!***

Zer ikusi, hura ikasi.

2- **Zerikusi**, ordea, izena da:

*Horrek **zerikusi** handia du hemengo kontuekin.*

*Gure artean sortua ez izanagatik, badu **zerikusi** berezia euskaldunokin.*

*Honek ez du horrekin **zerikusirik**.*

3.- **Zerikusi** substantiboaren sinonimoa da **ikusteko**, izena denean:

*Honek ez du horrekin **zerikusirik** = Honek ez du horrekin **ikustekorik**.*

4.- Ez dira zuzenak bi egiturak (**zer ikusi** / **zerikusi**) **nahasirik** sortutako perpausak:

Honek ez du **zer ikustekorik horrekin.*

Honek ez du **zer zerikusirik horrekin (> Honek ez du **zerikusirik/ikustekorik** horrekin).*

Ikus **zerikusi** [Euskaltzaindiaren Hiztegia](#)